

UDALERRI EUSKALDUNAK JOMUGAN

Euskaraz bai, baina ondoan gaztelania badu

Jo dezagun herriko biztanleen %80 euskalduna dela. Udalak bere jarduna euskaraz egitea lortu du, gaztelaniari aurrea hartuta. Ez da erraza izan, baina herritarrak ohitu dira udalarekin duten harremana euskaraz izatera. Orain badator Carlos Urquijo, Espainiako Gobernuaren ordezkaria EAEn, eta dio euskara hutsean ez dagoela aritzerik. Ez ditu eraman epaitegitara gaztelania hutsean ari diren administrazioak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

ARITZEAK ARAZOAK DAKARTZA. Carlos Urquijok lan asko dauka, urte luzez gogor aritu direlako beharrean udalak. Euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko neurri eraginkorrak hartu dituzte eta Espainiako Estata ate ondoan da galga jartzeko.

Gobernu ordezkariak era guztietako eskakizunak egin dizkie udalei. Erabilera planak, hizkuntza irizpideak, kontratazio irizpideak, elebitasun eskaerak, diru-laguntzak... nola ari diren egiten galdetu die. Gaztelania hitzunen eskubideak urratu direla iruditu bazaio, epaitegitara eraman ditu udalak.

Euskararen Legea makulu

Espainiako Gobernuak Euskararen Legearen irakurketa zurruna ari da egiten. Udalek ele bitan aritu behar dutela dio. Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziolinguistikoa anitza kontuan hartuta, zenbait udalerritan aurrerapen ederra litzateke udal administrazio jarduna euskaraz eta gaztelaniaz egitea, tokitan delako euskara egoera horretatik. Carlos Urquijoren helburua ordea, ez da euskal hitzunen eta gaztelania hitzunen, guztien, eskubideak babestea. Hala balitz, oporrak hartzeko betarik gabe aritu beharko luke EAEnko administrazioei helegiteak ipintzen, euskal hitzunen eskubideak etengabe urratzen direlako.

1982an onartu zen Euskararen Legeak bazuen atal bat zeinaren arabera gune euskaldunetan administrazioak euskara hutsean aritzerik izango zuen. Konstituzio Auzitegiak ordea, atzera bota zuen. Gaur egun, udal eus-

kaldun asko ia euskara hutsean ari dira lanean eta Euskararen Legearen irakurketa murriztaileak epaitegitara eraman ditu. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok hala dio: “Pandoraren kutxa zabal daiteke orain. Teorian, Urquijok printzipio konstituzionalak defendatu behar baditu, euskararen ofizialtasuna ere defendatu beharko luke. Baina ari gara ikusten nora jotzen duen: esan digu zenbat udalek ez duten errespetatzen Euskararen Legea, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kideei egin dizkie eskakizunak”. Euskararen Legea du makulu. Hala ere, Bilbaok gogorarazi du Eurokartari begira diezaiokeela Espainiako Gobernuak, hark dioenaren arabera, administrazio dokumentuek euskaraz balio osoa izango bailukete.

Eta orain zer?

Itxura onik ez du. Zarauzko eta Lasarte-Oriako udalek aldeko epaia izan dute –hizkuntza irizpideetan eta kontratazioetan, hurrenez hurren–, baina Lekeitioko Udalak badu kontrako epaia udal erabakien agiriak Gobernu ordezkarietara euskara hutsez bidaltzeagatik. Kontseiluko eta UEMAko ordezkariak ez dute itxaropen handirik. Auzitegiak ez dira oso euskaltzaleak.

Eusko Jaurlaritzari udalok babestea egokitzten zaiola azpimarratu dute UEMAk eta Kontseiluak. Bilbaoren ustez, orain bi gauza egin daitezke: Euskararen Legea eskuar epaitegietan defendatzen saiatu, eta horrek aurrerabiderik ez badu Legebiltzarrerara eraman. “Jaurlaritzak uste badu Euskararen Legearen



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Kontseiluak eta UEMAK otsailaren 28rako manifestazioa deitu dute Donostian, "Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara!" lelopean.

irakurketa zurruna egiten ari direla, baina lege horrek berak aukerak ematen dituela, epaiketetan egon beharko luke udalerrien defentsan. Kontrako epaiak egon daitezkeela aurreikusita B plana ere eduki beharko luke. Hau da, baloia Legebiltzarrean utzi behar da eta pentsatu zein moldaketa egin behar zaizkion legerari halako gauzak saihesteko”.

Udal Legeak ekar lezakeena

Udalei hainbat eskumen emateko aukerak sortzen ditu Udal Legeak, eta bide horretan euskaldunen eskubideak babesteko. Udalek euskara sustatzeko eskumenik ez dute, teoriarik, baina praktikan egin egiten dute. Udal Lege proposamenak aurrera egiten badu, udalek euskara bultzatzeko eskumena izango dute. Adibideren batean garbi jasotzen du hainbat agiri mota euskara hutsean egin ahaliko dela. Zirrikituak zirrikitu, lege zurruna

idatzi dutela uste du Miren Seguro UEMA-ko koordinatzaileak: “Adibidez, hizkuntza paisaia udal denek ele biz eduki behar dutela dio, ez du interpretaziorako aukerarik ematen. Kataluniako legeak dio ‘gutxienez katalanez’ egongo dela. Legea onartzeko gehiengo edukita, ez onartu bihar bertan gure kontra erabiliko den legea”.


Udalak epaitegietan

Udalerri euskaldunetako udalek, euskara hutsean ari diren horiek, epaitegietan galtzeko arrisku handia dute. Lekeitioko Udala da aurrekaria. Ezin dute bat eginda borrokatu eta udal asko txikiak dira. Esan dute ekonomikoki epaiketei aurre egitea ezinezkoa izango zaiela. Beraz, aurrera jarraitzea erabakitzen badute babesa eta laguntza beharko dute, eta atzera egitea hautatuz gero itzulpen lanetan hasi beharko dute. Alabai-

Babeslea: Bilboko Udala



UDALERRI EUSKALDUNAK JOMUGAN



na, euskaraz daukaten guztia gaztelaniara eramatea ez da doan. Dena dela, itzulpen gastua ez litzateke urtetako euskararen normalizazioan emandako atzerapauso nagusia. Udalarekin batik bat idatzizko harremanak normalizatzeko urte asko behar izan dira, eta badakigu, eremu formalean, ele bitan aritzeko aukera emanda zein erraza den gaztelaniatzeko testuetara jotzea. Bi hizkuntzetan hastea atzerakada handia litzateke.

Bilbaoren ustez, erabaki irmoa hartu duten udaloi aitortza eta babeserakutsi behar zaie: “Ez diot zentzu paternalistan, egiten ari direna txalotzen dugu. Esan behar diegu ez daukela bakarrik, eta ez direla bakarrik”. Kontseiluko komunikazio buru Saioa Rodriguezek ondorengoa gaineratu du: “Orain udalei egokitu zaie erantzukizuna, baina ez da beraiek bakarrik kudeatu behar duten kontua, ardua politikoa duten horiek guztiak dute erantzukizuna”.

“Jaurlaritzak uste badu Euskararen Legearen irakurketa zurruna egiten ari direla, baina lege horrek berak aukerak ematen dituela, epaiketetan egon beharko luke udalerrien defentsan”

Paul Bilbao, Kontseilua

Euskal Autonomia Erkidegoan 75 udalerri aritu da Carlos Urquijo. Udal jardun batekin baino gehiagorekin sartu den udalerrietan, prozeduran urrutieneko egoera harrapatu duen udal jarduna (erabilera plana, kontratazio irizpideak...) hartu dugu kontuan mapa koloreztatzeko. Eguneratze lanetan gorabeheraren bat izan daiteke. Mapa ulertzeko argibide gehiago alboko orrialdean.

Hau ez da Urquijoren eraldia

Ez da Espainiako Gobernuaren ordezkariaren apeta, Espainiako eta Frantziako Estatuak Euskal Herriko hizkuntza neurrietan esku hartzeko duten politika baizik. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak (Carmen Albak) ez du Urquijok duen osperik, hainbestearinoko lanik izan ez duelako. Haren ordezkari, Nafarroako Gobernu bera ari da. Adibide ona da Baztango Udalarena. UEMAK erabilera planak udalbatzarretara ez eramatea aholkatu zieten udalei, Olaztiko aurrekaria baitzuten. Udalerririk hartako hizkuntza irizpideak errekurritu zituen Nafarroako Gobernuak eta epaia kontrakoa izan zen. Baztanen udalbatzarretara eraman dituzte hizkuntza irizpideak, eta Gobernuak helegitea jarria du. Beste udalerrietako hizkuntza irizpideak ere udalbatzarretara eramango balituzte patu bera izango lukete.

Frantziako Gobernuak ere garbi utzi du zein den Estatu hizkuntza. Bi adibide ematearren, Estatu ordezkari Patrick Dallennesek helegitea ezarri zion Hendaia Herriko Etxeari, ikastolari eraikin bat uzteagatik, eta Uztaritzeko Herriko Etxea ere epaitegietara eraman du Dallennesek berak, udalean euskaraz hizkuntza ofizial izendatzeagatik. ■

Espainiako Gobernu ordezkariak ipinitako errekerimendu eta helegiteak

Carlos Urquijo Gobernu ordezkariak hizkuntza irizpideen kontra jo du batean eta bestean. Batzuetan hizkuntza irizpideak osorik errekurritu ditu, eta beste askotan irizpide horien azpiatalez galdezka ibili da edo epaitegietara eraman ditu.

1 UEMAko kide izatea.

2 **Erabilera plana:** Udala euskalduntzeko egiten den plana. Plana betetzeko hizkuntza irizpideak ezartzen dira. Erabilera plana, hizkuntza irizpideak epe zehatz batean betetzera iristeko bitartekoa da.

3 **Hizkuntza irizpideak:** Udal batek bere barne eta kanpo jardunerako zehazten dituen irizpideak, bai ahozkoak baita idatzizkoak ere. Adibidez: nola jokatu herritarren aurrean, nola izango diren barruko harremanak, langileek zein hizkuntza eskakizun bete beharko dituzten...

Urquijok jomugan izan dituen irizpide zehatzak:

4 **Kontratazio irizpideak:** Demagun udalak enpresa bat kontratatu behar duela zerbitzu bat emateko. Enpresentzako baldintzak argitaratuko ditu eta horien artean izaten dira hizkuntza baldintzak. Espainiako ordezkariak baldintza horietan hizkuntza irizpideak sartu izana errekurritu du.

5 **Diru-laguntzak:** Udalak diru-laguntzak emateko oinarriak prestatzen dituenean hizkuntza irizpideak ezartzen ditu. Esate baterako, diruz laguntzen diren kultur ekitaldien iragarkietan euskara erabiltzeko betebeharra ezartzen du.

6 **Elebitasun eskaerak:** Udalek beren erabaki guztiak Gobernu ordezkarietara bidaltzeko betebeharra dute, legez. Erabaki horiek euskaraz hartzen dituzte udal askok, eta barne dokumentuak direnez, ez dira itzul-tzen. Udaletan hartzen diren erabaki horiek euskaraz bakarrik bidaltzeagatik jo du Urquijok udalen kontra.

Jomugan jarritakoak:

75 udal, Gipuzkoako Foru Aldundia, UEMA eta Urola-Kosta mankomunitatea.

Abaltzisketa 4 6	Gaztelu 6	Zizurkil 4	Ibarra 4
Aizarnazabal 4	Hernani 4	Aduna 6	Itsasondo 6
Alegia 6	Irura 4 6	Albiztur 4	Leaburu-Txarama 6
Altzo 3 4	Izurtza 2 4	Altzaga 6	Lekeitio 4 6
Amoroto 2 4 6	Lasarte-Oria 4	Amezketza 6	Lezo 4
Andoain 4	Lazkao 4 5	Anoeta 4	Lizartza 6
Aretxabaleta 4 6	Legazpi 4	Antzuola 6	Oiartzun 4 6
Arrasate 4	Mallabia 2 4	Arama 6	Oñati 4 5 6
Astigarraga 4	Mañaria 2 4	Aramaio 6	Orexa 6
Atxondo 4	Munitibar 2	Beizama 6	Orio 4
Aulesti 4 6	Mutriku 2 3 4 6	Berastegi 1 6	Pasaia 2 4 6
Azkoitia 4	Ondarroa 2 4	Bergara 4 5 6	Soraluze 4
Beasain 4	Ordizia 4	Eibar 2 4	Zerain 1
Belauntza 6	Ormaiztegi 4	Elgeta 6	Azpeitia 4 6
Bermeo 2 4 6	Otxandio 2 4 6	Elgoibar 3 4 5	Tolosa 3 5 6
Berriatua 6	Segura 6	Errenteria 4 5	Zarautz 2 3
Deba 4	Urretxu 4	Errezil 4	Zestoa 4 6
Eskoriatza 2 4	Usurbil 4 6	Gaintza 6	Zumaia 4 6
Ezkio-Itsaso 4	Villabona 4	Getaria 4	

■ Errekerimendua: Eskakizun hutsa, epaitegietara jo gabe

■ Helegitea: Epaitegietara jo du Urquijok

Miren Seguro, UEMAko koordinatzailea

«Herrian lau erdaldun daudelako dena ele biz egiteak ez du zentzurik»

Orain arte nola moldatu dira UEMAko udalerriak euskara hutsez?

Urquijorik ez zebilen. Orain etorri da [barrez ari da]. Katalunian ere lege bera dago. Han mila zirrikitu baliatu eta askoz aurrerago ailegatu dira. Guri ez digute lagatzen.

Nahiz eta Espainiako Gobernuaren esku-hartzerik ez izan, neurriak hartzen zituzten.

Adibidez, udal batek erabilera plana onartzen duenean Eusko Jaurlaritzaren aldeko txostena behar du. Legelariak esaten du plan hori legala den ala ez. Gure negoziazioak horren baitan izan dira, urtetan. Hasieran jartzen genuena jartzen genuela aldeko txostena egiten ziguten. Gero, “euskara hutsez” baino, “euskaraz” jartzeko esaten hasi ziren. Ondoren, “euskaraz, baina hizkuntza eskubideak errespetatuz” ipintzeko. Bestelako beherapenak ere izan ditugu. Azkeneko gomendioa “euskaraz ere” jartzeko izan da. Hori ez dugu onartuko. Nora goaz “euskaraz ere egingo da” esanez, gauza asko eta asko euskaraz baino ez garenean ari egiten?

Euskararen Legeak ele bitan egitea eskatzen du.

Ez da euskararen legea. “Euskaraz ere” egiten uzten du, baina “euskaraz” tamainan. Dena gaztelaniaz egiten den eremuan “euskaraz ere” egitea urrats bat izan daiteke, baina erabat euskaraz bizi den udalerrian? Azpeitiko Udalean euskaraz eta gaztelaniaz jardutea, gaztelaniaren mesedetan aritzea da.

Gaztelania hutsez lasai ederrean funtzionatzen dute hemen medikuek, poliziak, suhiltzaileak. Zerbitzu publikoen ehuneko handi bat oraindik gaztelania hutsez ari da. Euskara hutsez egitea da delitua. Horixe diferentzia.

Bi hizkuntzetan egiten hasteak zein ondorio izango lituzke?

Ekonomikoki, itzulpen lan izugarria egin beharko lituzateke. Normalizazioaren ikuspegitik, akats larria da. Beti gaztelaniaz ikasi duen belaunaldia adibidez,

“Nonbait hizkuntza eskubide guztiak errespetatzen badira udalerrri euskaldunetan da. Guztiei, euskaldunei eta erdaldunei, erantzuteko prestatuta daude, beste asko ez bezala”



ohitu da euskaraz irakurtzera, dela aldizkaria, dela udaleko bandoa... Dena ele biz egingo balitz, jendearen joera, bereziki belaunaldi zaharrena, gaztelaniaz irakurtzea da. Euskara hutsez egiteak ez du esan nahi erdaldunei hizkuntza eskubideak urratzen zaizkienik. Arazoak badituzte, bitartekoak jartzen dira konponbidea aurkitzeko. Ez du zentzurik ordea, herrian lau erdaldun daudelako dena ele biz egiteak.

Lau erdaldun dauden herrian euskaldunen eta erdaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko adibide bat azalduko?

Herriko festa programa euskara hutsez dago, eta oharra dator, esanez norbaitek gaztelaniazkoa behar badu udaletxean galdetzeko. Han eman egiten zaio. Nonbait hizkuntza eskubide guztiak errespetatzen badira udalerrri horietan da. Guztiei erantzuteko prestatuta daude, beste asko ez bezala. Pediatrarekin gaztelaniaz egin behar, epaitegian beste hainbeste. Urquijok ez du horrelakorik errekurritzen.

Nork babestu behar ditu udalak?

Goi administrazioak. Eskumena Eusko Jaurlaritzarena da. Bitartekoak jarri beharko lituzke Euskararen Legea hobetzeko, euskararen normalizaziorako izan beharrean, oztopo bihurtzen ari den guneetan behintzat.

Udalerrri euskaldunentzat lege babes berezia behar al da?

Udalerrriok hizkuntza politika bereziak behar dituzte eta politika horiek legalak izan daitezen lege babes berezia behar dute. Eusko Jaurlaritzak ulertu behar du Barakaldoko eta Azpeitiko hizkuntza politikak ezin direla berdinak izan, errealitate soziolinguistikoa oso bestelakoa delako.